

Akta honen osagarri bilkurako irudiak eta audioa grabatu dira.
Honako hau da ondoriozko artxiboaren identifikazio kodea:

3033a39b7678ff46327e4d0bca7a2f86c46fea3f3abecc56fd78ff4011cdb78

Lotura honetan dago: <https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/idazkaritza/udal-plenoetako-aktak>

TOLOSAKO UDALBATZAK 2025EKO OTSAILAREN 26AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA

2025.02.26

Tolosako Udaletxean, 2025eko otsailaren hogeita seian, 18:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Angel Martinez de Rituerto Arregui izan da, eta eguneko gai-zerrenda aztertzeko, udal batzarkide hauek agertu dira:

Alkate-lehendakaria:

Angel Martinez de Rituerto Arregui (EH BILDU)

Bertaratutako zinegotziak:

Estitxu Kortejarena Ugarte(EH BILDU)
Goiuri Ezeiza Arandia(EH BILDU)
Ander Figuerido Zubiria(EH BILDU)
Josune Sanz Vidal(EH BILDU)
Aitor Agirresarobe Murgi(EH BILDU)
Kristina Pelaez Errazkin(EH BILDU)
Aitzol Garcia Azurmendi (EH BILDU)
Garbiñe Marzol Ormazabal(EH BILDU)

Xarles Iturbe Pasaban(EAJ-PNV)
Biotza Agirre Ugalde(EAJ-PNV)
Leire Zubeldia Rezola(EAJ-PNV)
Javier Zabala Sastre(EAJ-PNV)
Ainhoa Dominguez Landa(EAJ-PNV)
Patxi Amantegi Zubiria(EAJ-PNV)
Iker Uson Gonzalez(EAJ-PNV)

Ez bertaratutako zinegotzia:

Jose M^a Villanueva Telleria (PSE-EE-PSOE)

Idazkari akzidentala:

Francisco Javier Araniguría Rodrigo

Kontuhartzaile akzidentala:

Paulino Alonso Eraso

Eguneko gai-zerrenda

1. Akta hau onartzea:
2025eko urtarrilaren 30eko ohiko osoko bilkurakoa.
2. Onartzea Tolosako Udalaren eta Vitoria-Gasteizko Udal Musika Eskolaren arteko kudeaketa-hitzarmena, udal honetako musika-eskolako Zuzendaritzak proposaturikoa.
3. Galderak eta eskaerak.

Alkate-lehendakariak batzarrari hasiera eman dio gai hauek aztertzeko:

1. AKTA HAU ONARTZEA:

2025EKO URTARRILAREN 30EKO OHIKO OSOKO BILKURAKOA.

Izenburuan aipatutako akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

2. ONARTZEA TOLOSAKO UDALAREN ETA VITORIA-GASTEIZKO UDAL MUSIKA ESKOLAREN ARTEKO KUDEAKETA-HITZARMENA, UDAL HONETAKO MUSIKA- ESKOLAKO ZUZENDARITZAK PROPOSATURIKOA.

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2025eko otsailaren 19ko irizpena.

IKUSIRIK

LEHENIK.- Tolosako udaleko Musika Eskolako zuzendariak, 2025eko otsailaren 5ean egindako txostenean, Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroako Musika Eskoletako ordezkariak, musika eta dantzako irakasleen lan poltsa bateratuen sustapena lantzeko helburuarekin, irakasleen lan poltsa bateratuak egiteko hitzarmen proposamena egin dute, aurreko urteetan egin direnen ildotik jarraituaz.

Honela, Musika Eskolako Zuzendariak, jardunbide bateratu horretan parte hartzea proposatu du, ondoan aipatzen diren arrazoietan oinarrituta.

BIGARREN.- Euskal Herriko Musika eta Dantza Eskolen artean elkarlan esparru historiko bat dago, emaitzak eman dituen hainbat espezialitatetako irakasleen lan poltsak sortzen, jarraian adierazita dagoenez:

1. Horretarako, 2007an Donostialdeko Ikastetxeetako zuzendariak hasi ziren haien arteko bilera batzuk egiten, eta 2008an adostu zuten elkarrekin lan-poltsa batzuk eratzea. Orduan Donostiako, Errenteriako, Andoaingo, Lasarte-Oriako eta Lezoko Udalek parte hartu zuten.
2. 2011an, aurreko esperientzia batean oinarrituta, bigarren lankidetzan hitzarmen bat sinatu zen gai berari buruz; hitzarmen horretan Donostiako, Irungo, Lasarte-Oriako, Tolosako, Orioko, Beasaingo, Errenteriako eta Lezoko udalek parte hartu zuten eta guztientzako zerrenda komunak eta bateratuak kudeatzeko irizpideak zehaztu ziren.
3. Bi prozesuak baloratu dira eta Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarteko (EHME) kide diren hainbat ikastetxek egindako eskaeren ondorioz, bilera batzuk egin dira, Eskola eskatzaile horien premiei erantzuteko irakasle poltsa batzuk osatzeko.
4. 2016an hainbat bilera egin ziren Euskal Herriko Musika Eskolen elkartearekin, oinarriak eta irizpideak adosteko aukerak bilatzeko. Hortik prozesu bat sortu zen, eta bertan 26 eskolak hartu zuten parte.
5. 2019an, beste deialdi bat egin zen Donostiako Udal Musika eta Dantza Eskolarekin, ESKOLA SUSTATZAILE gisa, eta Bilboko eta Gasteizko eskolekin, EGOITZA-ESKOLA gisa, eta 34 ikastetxek parte hartu zuten.

Konpromisoa hartu zuten, hurrengo deialdietan, ESKOLA SUSTATZAILEaren eginkizuna txandakatu egingo zela hiru hiriburuen artean; hala, 2022ko deialdian, Bilbo izan zen eskola sustatzailea, eta, ondorioz, 2025eko deialdia Gasteizi dagokio. Deialdi horretan Nafarroako Foru Komunitateko eskolei ere eman zitzaizen parte hartzeko aukera.

HIRUGARREN.- Aurreko elkarriketa eta ikerketa horiek tarteko, aukera ikusi da eskola kopuru handi batekin hitzarmenak egiteko. Kudeaketa errazteko, banan-banan sinatuko dira eskola bakoitzak dituen behar eta ezaugarri guztiei bide emateko beharrezko hitzarmen guztiak.

LAUGARREN.- Jarduten ari diren bi administrazioek badakite zein zaila den tokiko esparruan musika eta dantzako irakasleen lan poltsak sortzeko hautapen prozesuak egitea, kudeaketa materialaren konplexutasuna eta deialdia egiten duen entitateari sortutako kostu ekonomikoak direla eta. Gainera, tokiko entitate gehienek kasuetan, horrelako prozesuak egiteko espezializatutako jendea falta da. Halaber, aldi berean prozesu eta deialdi ugari egoteak administrazioari baliabideak barreiatzea eta kostuak biderkatzea dakarkio, baita prozesuetan parte hartzeko interesa duten herritarrei ere.

BOSGARREN.- Tolosako udaleko Musika Eskolak proposatu du hautaketa prozesu bateratu bat egiteko jarduketarako garatzea, esparru komun bat ezartzearen abantailak kontuan hartuta. Hautaketa prozesuak lurraldeko Musika eta Dantza Ikastetxeen, beren

tokiko autonomia erabilita hartan parte hartzen dutenen, beharrei erantzun behar die. Hauek dira abantaila horietako batzuk:

- Hautaketa irizpide berberak aplikatzea merezimenduak balioestean.
- Aldi berean hainbat hautaketa prozesutan parte hartzen ari diren hautagaien ihesetik eratorritako gainkostuen azaroa konpontzea.
- Prozesuak egitearen kostu ekonomikoa eta giza baliabideena murriztea.

SEIGARREN.- Helburu hauek ikusita, Tolosako Musika Eskolako zuzendariak proposatu dio udal honi hitzarmen bat izenpetzea **Gasteizko Udalaren Musika Eskolarekin**, honako xedearekin: Gasteizko Udalaren Musika Eskolari **gomendatzea irakasleen lan poltsa bateratuak sortzeko hautaketa-jardunbidea gara dezala**, Tolosako udaleko Musika Eskolak izan ditzakeen aldi baterako pertsonalaren beharrei erantzuteko. Hitzarmen hori, erakunde publikoen arteko lankidetzaz-hitzarmenaren izaera izango du.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

LEHENIK.- Tolosako udaleko Musika Eskola, Tolosako udaleko zerbitzu publikoa da. Zerbitzu hau, udalaren eskumen propioa da, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, bere 17.20 artikuluan eta Zazpigarren Xedapen Iragankorra xedatutakoaren arabera.

Tolosako udaleko Lanpostuen Zerrendan dagoen informazioaren arabera, Musika Eskolako irakasleak enplegatu publikoak dira, lan-kontratudun langileak. Langile hauen hautaketa ondorengo legeria hauek arautzen dute:

- 2/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 103 artikuluan xedatutakoaren arabera, lan-kontratudun pertsonala hautatu behar da ondoko printzipioetan oinarritutako prozesuen bitartez: berdintasuna, publikitatez -dagokion Lan Eskaintza Publikoa aurretik onartuta-, merezimendua eta gaitasuna.
- 5/2015 Errege-Dekretu Legegileak, urriaren 30ekoak, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutua arautzen duenak, bere 55.2 artikuluan xedatzen ditu enplegu publikora sartzeko irizpide nagusiak: *"2. Las Administraciones Públicas, entidades y organismos a que se refiere el artículo 2 del presente Estatuto seleccionarán a su personal funcionario y laboral mediante procedimientos en los que se garanticen los principios constitucionales antes expresados, así como los establecidos a continuación:*

- a) *Publicidad de las convocatorias y de sus bases.*
- b) *Transparencia.*
- c) *Imparcialidad y profesionalidad de los miembros de los órganos de selección.*
- d) *Independencia y discrecionalidad técnica en la actuación de los órganos de selección.*
- e) *Adecuación entre el contenido de los procesos selectivos y las funciones o tareas a desarrollar.*
- f) *Agilidad, sin perjuicio de la objetividad, en los procesos de selección.*

- Azkenik, 11/2022 Legeak, abenduaren 1ekoak, Euskal Enplegu Publikoa arautzen duenak, bere 77 artikuluan, aldi baterako pertsonala hautatzeko printzipio berdinak xedatzen ditu.

Musika eta Dantza Eskoletako aldi baterako irakasleak hautatzeko Gasteizko Udalaren Musika Eskolak proposatutako oinarriek arautzen duten jardunbideak, goian aipaturiko printzipioak betetzen ditu, teknikari honen iritziz.

Bestaldetik, proposatutako hitzarmenaren bitartez, udal honi dagozkion ahalmen batzuk jartzen dira Gasteizko udalaren esku, hain zuzen, ondoko hauek: aldi baterako irakasleak hautatzeko prozedura egikaritzeko jarduketa materialak eta tekniko guztiak, proposaturiko hitzarmenean eta oinarrietan jasotakoaren arabera. Kasu guztietan, Tolosako udalak kontserbatuko ditu dagozkion eskumenak arlo honetan.

BIGARREN.- Kudeaketa-Gomendioaren bitartez, dagokion administrazio publikoak edo zuzenbide publikoko entitate batek, bere eskumenekoa den jarduera materiala edo teknikoa utz dezake administrazio bereko edota beste bateko beste organo edo zuzenbide publikoko organo baten esku, jarduera horiek haien eskumenen barruan badaude, efikaziari begira komeni bada, edo jarduera horiek gauzatzeko baliabide tekniko egokirik ez badago, 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoko Araubide Juridikoa arautzen duenak, bere 11.a artikuluan xedatutakoaren arabera.

Kasu honetan proposatzen den kudeaketa-gomendioak bi helburu horiek betetzen ditu. Alde batetik, Musika eta Dantza Eskola guztien aldi baterako irakasleen beharrak asetzeko jardunbide bateratuak gauzatzea askoz eraginkorragoa da, bestelako kasuan Musika Eskola bakoitzeko administrazioak bere jardunbide propioa garatu beharko lukeelako. Bestetik, udal administrazioetan ez dago nahiko pertsonal aditua, eta, egongo

balitz ere, dauden baliabide pertsonalekin ezinezkoa izango litzateke beharrezkoak diren hautatze-prozesuak aurrera eramatea.

Arrazoi hauek kontuan harturik, proposatzen den kudeaketa-gomendioak onurak besterik ez dakartzkio administrazio honi.

Horretaz gain, kudeaketa-gomendioak arautzen dituen gainontzeko xedapenak ondoko hauek dira, beti ere aipatu den Legearen 11. artikulua barruan:

“Sektore publikoko kontratuen legerian araututako kontratuen berezko prestazioak ez dira izango kudeaketa-gomendioen xede. Hori gertatzen bada, horien izaerak eta araubide juridikoak legeria horretan aurreikusita dagoena bete beharko du.

2. Kudeaketa-gomendioak ez dakar ez eskumenaren titulartasuna ez eskumen horretaz baliatzeko funtsezko elementuak lagatzea; horrelakoetan, kudeatzeko gomendia ematen duen organoaren edo entitatearen ardura izango da gomendian emandako jardura material zehatzari oinarria emango dioten edo hura barne hartuko duten egintza edo erabaki juridiko guztiak hartzea.

Nolanahi ere, gomendia jasotzen duen entitate edo organoa izango da kudeaketa-gomendia egikaritu bitartean eskuratzen dituen datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna, eta datu pertsonalen babeserako araudian xedatuta dagoena aplikatuko zaio.

3. Kudeaketa-gomendioak formalizatzeko, erregela hauek bete beharko dira:

a) Kudeaketa-gomendia administrazio berekoak diren administrazio-organoen edo zuzenbide publikoko entitateen artean egiten bada, administrazio horren arauetan ezarrita dagoen bezala formalizatuko da; halako araurik ez badago, berriz, esku hartzen duten zuzenbide publikoko organo edo entitateek espresuki hartutako akordioari begiratuko zaio.

Nolanahi ere, kudeaketa-gomendia formalizatzeko tresna eta ebazpena, efikazak izan daitezen, Estatuko Aldizkari Ofizialean, autonomia-erkidegoko aldirikari ofizialean edo probintziakoan argitaratu beharko dira, gomendia egiten duen organoa zein administrazioakoa den kontuan hartuta.

Administrazio bakoitzak arautu ditzake akordio horien baliozkotasunerako betekizunak. Akordio horietan, gutxienez honako hauek jasoko dira espresuki: zein den jardura, indarraldia eta kudeaketaren izaera eta irismena.

b) Kudeaketa-gomendioa administrazio desberdinetako organo eta zuzenbide publikoko entitateen artean egiten denean, dagokion hitzarmena izenpetuz formalizatuko da; Aipatutako hitzarmena Estatuko Aldizkari Ofizialean, autonomia-erkidegoko aldizkari ofizialean edo probintziakoan argitaratuko da, gomendioa egiten duen organoa zein administrazioetakoa den kontuan hartuta.

Kasu honetan, kudeaketa-gomendioa formalizatzeko tresna, hitzarmen bat izango da. Hala ere, aipatu den 40/2015 Legearen 48.9 artikuluan xedatutakoaren arabera, lankidetzeta-hitzarmenak arautzen dituen xedapenak ez dira aplikagarriak izango kudeaketa-gomendioen kasuan.

Hitzarmena, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da, transkribatu den 11.3.b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

HIRUGARREN.- Aipatutakoez gain, hitzarmen honi ondoko arau hauetan xedaturikoa aplikatuko zaio:

- 64/2024 Dekretua, maiatzaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan musika-irakaskuntza espezifikoa, arautu gabea, ematen duten ikastegiak, hau da, musika eta dantza eskolak arautzen dituenak.
- 229/2007 Dekretua, abenduaren 11koa, Musikako ikasketa profesionalen curriculum eta ikasketa horietarako sarbidea ezartzen dituenak.
- 252/2007 Dekretua, abenduaren 26koa, dantza ikasketa profesionalen curriculum eta ikasketa horietan sartzeko probak ezartzen dituenak.
- 421/1992 Foru Dekretua, abenduaren 21ekoa, Musika eta Dantza Eskolen sortzea eta funtzionamendua zuzenduko duten oinarriko arauak ezartzen dituenak.

LAUGARREN.- Kudeaketa-agindua onartzeko organo eskuduna Udalbatza Plenoa da, **korporazioa osatzen duten kideen gehiengo absolutua behar duena**, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 22.2.q) eta 47.h) artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Tolosako Udaleko Antolakuntzako Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrak, 2025eko otsailaren 19an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

- **Aldeko bozkak:** Kristina Pelaez Errazkin, Josune Sanz Vidal, Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte, Biotxa Agirre Ugalde eta Ainhoa Dominguez Landa.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

LEHENA.- Tolosako udala eta Gasteizko Udalaren Musika Eskolarekin udal honetako Musika Eskolako Zuzendaritzak proposaturiko kudeaketa hitzarmena onartzea. Hitzarmenaren xedea ondokoa da: Gasteizko Udalaren Musika Eskolari gomendatzea irakasleen lan poltsa bateratuak sortzeko hautaketa-jardunbidea gara dezala, Tolosako udaleko Musika Eskolak izan ditzakeen aldi baterako pertsonalaren beharrei erantzuteko, guztia honako klausulen arabera:

LEHENA.- XEDEA

Hitzarmen honen bidez, TITULARTASUN PUBLIKOKO ZENTROAK ESKOLA SUSTATZAILEAREN esku uzten du musika eta dantza zentroetarako lan-poltsak sortzeko hautaketa-prozedura gauzatzeko beharrezkoak diren jarduera material eta tekniko guztiak egitea.

BIGARRENA.- DEITU BEHARREKO ESPEZIALITATEEN DESKRIBAPENA

Hautaketa-prozedura bateratuak, besteak beste, deialdi honen 1. eranskinean zehazten diren espezialitateak eskainiko ditu.

HIRUGARRENA.- KUDEAKETA-GOMENDIOAREN IRISMENA

ESKOLA SUSTATZAILEAK jasotako gomendioa betetzeko beharrezkoak diren jarduketa material edo tekniko guztiak egingo ditu. Zehazki, honako jarduketa hauek egingo ditu:

- A. **Hautaketa-oinarri bateratuak landu eta onestea eta Arabako Lurralde Historikoa-ren Aldizkari Ofizialean argitaratzea, bai eta EHAA-n eta gainerako foru-lurraldeetako aldizkarietan argitaratzea ere.**

Alderdi hauek hartu dira kontuan oinarriak lantzerakoan:

1. *Parte hartzeko betekizunak Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoak izango dira.*
2. *Gainera, irakasleak hautatzeko prozedura izanik, aplikatu beharreko lege-testu hauetan jasotako xedapenak sartuko dira, musika eta dantza zentroaren izaeraren arabera:*

- 64/2024 Dekretua, maiatzaren 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoan musika-irakas-kuntza espezifikoa, arautu gabea, ematen duten ikastegiak, hau da, musika eta dan-tza eskolak arautzen dituen.
 - 229/2007 Dekretua, abenduaren 11koa, musikako ikasketa profesionalen curricu-luma eta ikasketa horietarako sarbidea ezartzen dituen.
 - 252/2007 Dekretua, abenduaren 26koa, dantzako ikasketa profesionalen curriculum eta irakaskuntza horietarako sarbidea ezartzen dituen.
 - 421/1992 Foru Dekretua, abenduaren 21ekoa, musika eta dantza eskolen sorrera eta funtzionamendua arautuko duten oinarritzko arauak ezartzen dituen.
3. *Balorazio bat egingo da, TITULARTASUN PUBLIKOKO ZENTRO bakoitzak aukera izan dezan bere lanpostuen zerrendan dauden betekizunak zehazteko. Zehazki, espeziali-tate bakoitzeko lan-politsetan sartzen diren pertsona guztiek izan beharreko ezaugarriak adieraziko dira:*
- *Hautagaiak egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna.*
 - *Lan-politsetan sartzeko titulazioa/gaikuntza/egiaztatpena. Hauetako bat izango da:*
 - i. *Alor hauetako titulazioa/lanbide-gaikuntza:*
 - 1. *Musika: 756/1992 ED eta 1577/2006 ED.*
 - 2. *Dantza: 389/1992 ED eta 85/2007 ED.*
 - 3. *Eusko Jaurlaritzaren gaikuntza, 289/92 Dekretuaren arabera*
 - 4. *Kualifikazio egokia egiaztatzea, 421/1992 Foru Dekretuaren arabera*
 - ii. *Instrumentu-irakasleen titulazioa, 2618/1966 Dekretuaren arabera, eta goi-mai-lako ikasketen baliokideak direnak irakaskuntzaren ondorioetarako.*
 - iii. *Arte Ikasketetako goi-mailako titulua.*

B. Parte hartzeko eskabideak aurkeztu eta izapidetzea.

1. *Eskabideak aurkeztea*

Eskabideak bitarteko elektronikoz aurkeztuko dira, ESKOLA SUSTATZAILEAK bere webgunean eskuragarri izango duen aplikazio informatikoaren bidez.

2. *Eskabidea aurkeztearen ondorioak*

Aurreko paragrafoan aipatutako idazkiak eta dokumentuak aurkezteko datak balio osoa izango du interesdunek ESKOLA SUSTATZAILEAREN aurrean epeak betetzeari dagokionez.

3. *Erregistratzeko eta bidaltzeko izapidea*

Administrazio sinatzaileek hitz ematen dute lan-politza eratzeiko deialdiari buruzko informazioa emango dietela interesdunei, eta hautaketa-prozesuarekin lotutako izapideak egiten lagunduko. Informazio horren barruan sartuko da Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Araudiak —datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari dagokionez pertsona fisikoen babesari buruzkoa (aurrerantzean, Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra edo DBEO)— 13. artikuluan adierazitakoa.

Horri dagokionez, ESKOLA SUSTATZAILEAk administrazio laguntzaileen eskura jarriko ditu prozesuaren fase bakoitzean eskuragarri dagoen informazioa eta behar diren baliabideak eskaerak eta erreklamazioak aurkezteko, izapidetze telematikoa egiten laguntzeko telefono-linea bat barne.

4. Bazter utzitakoak

Lan-poltsa osatzen dutenek edozein administrazio laguntzailek zuzendutako lan-eskaintzekin zerikusia duten eskabideak, idazkiak edo dokumentuak aurkeztu nahi badituzte, dagokion entitatearen egoitzan aurkeztu beharko dituzte, horrelakoak hitzarmen honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen baitira.

C. Datuen tratamendua.

Bi entitateak izango dira tratamenduaren arduradunak lan-poltsak kudeatzeko lankidetzaren esparruan, eta koordinatzeko neurriak ezarri beharko dituzte poltsak osotara operatibo mantentzeko; beraz, haien jarduketak une oro egokituko dira DBEOren eta datuen babesaren arloan aplikatzekoak diren gainerako araudietan xedatutakora.

ESKOLA SUSTATZAILEAk, poltsak osatu ondoren, TITULARTASUN PUBLIKOKO ZENTROAri lagako dizkio; azken horrek konpromisoa hartuko du datuak hitzarmen honetan jasotako helburuarekin tratatzeko, eta ezin izango dizkie datuak hirugarrenei laga.

Interesdunek datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzte, bai eta datuen babesari aplikatu beharreko araudian aurreikusitako gainerako eskubideak ere, erantzuleetako edozeinen aurrean. ESKOLA SUSTATZAILEA arduratuko da lan-poltsak ebazteaz eta, hala badagokio, eguneratzeaz. Interesdunen batek TITULARTASUN PUBLIKOKO ZENTROAren aurrean datuak babesteko eskubideren bat erabiltzen badu, ESKOLA SUSTATZAILEAri jakinarazi beharko dio, poltsak behar bezala eguneratu ditzan, HITZARMEN honetan ezarritako betebeharren banaketaren arabera.

Lan-poltsetako datu pertsonalak dauden arriskueterako egokiak diren segurtasun-neurriak hartuz tratatuko dira, eta DBEOren 32. artikuluko neurriak kontuan izan beharko dira, bai eta prozedurak ezarri ere segurtasun-arrakalarik izanez gero kontrol-agintaritzari eta interesdunei jakinarazteko. Halaber, TITULARTASUN PUBLIKOKO ZENTROAk eta ESKOLA SUSTATZAILEAk urtarilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuan —Administrazio Elektronikoa esparruan Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duena— aurreikusitako segurtasun-neurriak (teknikoak eta antolakuntzakoak) beteko dituzte. Datuen tratamendua eta gordetzeko legezko epeak amaitu ondoren, modu seguruan suntsituko dira.

D. Balorazio batzordeak.

1. *ESKOLA SUSTATZAILEAk dauden espezialitateak adina balorazio-batzorde izendatuko ditu. Honako hauek hartuko dira kontuan:*
 - a. *Batzordeko kideek uko egin beharko diote horretan parte hartzeari, eta errefusatu egin ahal izango dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan aurreikusitako kasuetan, edo deialdi hau argitaratu aurreko bost urteetan hautaprobetarako izangaiak prestatzeko lanak egin badituzte.*
 - b. *Batzordean trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua egongo da,*
 - c. *Era berean, parte-hartzaileak izendatzerakoan ahalegina egingo da izendatutako pertsona guztiak elebidunak izan daitezen.*

2. *Balorazio-batzordeak eratzeko, TITULARTASUN PUBLIKOKO ZENTROko langileen laguntza eskatu ahalko da. Horretarako, TITULARTASUN PUBLIKOKO ZENTROek konpromisoa hartzen dute beren langileen % 20, gutxienez, ESKOLA SUSTATZAILE-Aren esku jartzeko, haren plantillako kide izan daitezen, eta beren langileei egokituko litzaizkiekeen dietak beren gain hartzeko. Langile horiek hitzarmen honen 1. ERANS-KINEAN sartuko dira.*

E. *Hautaketa-prozesuaren nondik norakoak.*

1. *Hautaketa-sistema merezimendu-lehiaketa izango da, eta, guztira, 30 puntu emango dira.*
2. *Euskara jakitea eskakizun izan daiteke lan-eskaintza bat eskuratzeko, dagokion entitateak lanposturako onesten dituen eskakizunen arabera. Deialdiaren ondorioetarako, azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan —euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena— xedatutakoa hartuko da kontuan (2010/11/15eko EHAA, 219. zk.), bai eta Hezkuntzako sailburuaren otsailaren 28ko 30/2011 Foru Aginduak —Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuak ezartzen dituen mailei dagokienez, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Sailaren eskumen-eremuan hizkuntzen ezagutza egiaztatzen duten titulazioak eta ziurtagiriak ezartzen dituen— xedatutakoa ere (2011/04/01eko NAO, 64. zk.).*
3. *Derrigortasunik gabeko lanpostuetarako, hizkuntza-eskakizuna merezimendu gisa zenbatuko da, eta dagokion puntuazioa lan-poltsaren oinarrietan deskribatutako merezimenduen balorazioan lortutakoari gehituko zaio.*
4. *Hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuak betetzeko, zerbitzuaren beharrek hala eskatuz gero, eta ez badago eskatutako betekizunak betetzen dituen inor, zerrendako beste pertsona batzuegana jo ahalko da. Kasu horietan, eskatzen den euskara-maila baino txikiagoa egiaztatzea merezimendu gisa zenbatuko da, eta dagokion puntuazioa lan-poltsaren oinarrietan deskribatutako merezimenduen balorazioan lortutakoari gehituko zaio.*

Hautaketa-prozesuari buruzko argitalpenak ESKOLA SUSTATZAILEAren iragarki-taulan eta webgunean egingo dira, eta TITULARTASUN PUBLIKOKO ZENTROei bidaliko zaizkie. ESKOLA SUSTATZAILEAren iragarki-taulan argitaratzen deneko data izango da erabakigarria epeak zenbatzeko.

5. *Lan-poltsak sortzeko prozesua amaitu ondoren, zerrendak eguneratzeko prozedura bati ekingo zaio. Horretarako, ESKOLA SUSTATZAILEak irizpide hauek hartuko ditu aintzat:*
 - a. **Titulazio- eta euskara-betekizunak eguneratzea lan-poltsetan dauden pertsonentzat.**

Prozesua amaitu ondoren, zerrendetan dauden pertsonen beren profil profesionala osatu ahal izango dute ondoren lortzen dituzten egiaztapenekin (hizkuntza-eskakizuna eta/edo titulazioa). Dokumentazio horrek zerrendak eguneratzeko balioko du, ezarritako ordena aldatu gabe. Hala ere, kontuan hartuko da lanpostuaren betekizunak betetzen diren ala ez egiaztatzeko orduan.

- b. **Zerrendetan ez dauden hautagai berriak sartzea.**

Urtero irekiko da epea interesdunek eskabidea eta dokumentazioa aurkez ditzaten; ESKOLA SUSTATZAILEAren ebazpen baten bidez zehaztuko da epearen azken eguna, ondoren eskabideak baloratzeko.

Ezarritako epearen barruan aurkeztutako curriculumak lan-poltsa arautzen duten oinarrien irizpideen arabera baloratuko dira. Hautaketa-prozesua amaitu ondoren, deialdi horren bidez lan-poltsan sartzen diren pertsonak dagozkien zerrendetan sartuko dira, lan-poltsa osatzen dutenen atzetik, zero punturekin, eta hautaketa-prozesuan lortutako emaitzen ordenaren arabera.

Urtero ezarriko da , ofizioz, urteko lehen hiruhilekoan zehar deitutako espezialitate guztietarako.

Salbuespen gisa eta espezialitateren batean enplegu-eskaintzetarako hautagairik ez badago, ESKOLA SUSTATZAILEAK espezialitate hori itxi ahal izango du ebazpen baten bidez; ebazpen hori ohiko deialdia egiten den modu berean argitaratuko da.

LAUGARRENA.- HITZARMENA ALDATZEA

Hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean aldatu ahal izango da, bi aldeek hala adosten badute, eta akordio berriak eranskin gisa gehituko zaizkio dokumentu honi.

BOSTGARRENA.- INDARRALDIA ETA AZKENTZEA

Esku hartzen duten aldeek sinatzen duten egunean jarriko da indarrean hitzarmen hau, eta 2027ko abenduaren 31n amaituko.

SEIGARREN.- HITZARMENAREN ARAUBIDEA ETA AUZIGAIK

Hitzarmen hau administratiboa da, beraz, interpretatu eta garatzerakoan administrazio publikoen arteko lankidetzaz-hitzarmenei aplikatu beharreko ordenamendu juridikoa hartuko da aintzat.

BIGARRENA.- Kudeaketa-gomendioa jasotzen duen hitzarmena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Tolosako Udaleko web orrian argitaratzea.

HIRUGARRENA.- Erabaki hauek Tolosako Musika Eskolako zuzendaritzari eta Gasteizko udalaren Musika Eskolari jakinaraztea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko Botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi eta Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotxa Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Javier Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria eta Iker Uson Gonzalez.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu du Tolosako Udalaren eta Vitoria-Gasteizko Udal Musika Eskolaren arteko kudeaketa-hitzarmena, udal honetako musika-eskolako Zuzendaritzak proposaturikoa.

3. GALDERAK ETA ESKAERAK

Besterik gabe, 19:30ean, bilera bukatutzat eman dute, eta nik, idazkari akzidentala naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut, alkateak ontzat emanik.

ALKATEA
O.e.

IDAZKARI AKZIDENTALA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2025IPLE0002-2025/02/26ko akta/2025/02/26ko akta ()